

ZEHARKAKO IBILALDIAK BESTE ZERBAIT DIRA

Belabartze-Garbitza-Iturruburua-Txamantxoia

Antxon Narbaiza

Finalista por su «buena calidad» y premio de euskera en el Concurso de Artículos Pyrenaica-83, concedido «en razón de la buena técnica y riqueza del euskera empleado».

Goi-harkaitz xutetan eskalatzailera igobide desberdinen bila irrika bizian dabilen bezalaxe, hala behar luke ibili beherago —agian apalago—, dabilen mendizalea.

Behin arako Arrazola mediku-alpinistak «montañeros de bota» izenarekin bataiatu zituenek, badute zer ikasirik, badugu zer ikasi. Zorionez gero eta «montañero de bota» gutxiago ikusten da. Esan nahi dut, mendira lasterka igo, paisaiari begiratu-noiz edo noiz- eta berriro korrika beherantz hasten denarena.

Mendia maitatu egin behar da lehen lehenik, zeren bestela «footing» egitea hobe bait dugu eta seguru asko osasungarriago gertatuko zaigu. Mendia dastatu, han gainean haize biziaren eragina sentitu. Edo ta behelaino sartzen zaizunean haren hezetasunaz gozatu.

Zuhaitz eta landare-izenak ikasi, leku-izenak, inguruko historia eta leyenda. Ez dakit agian erdaraz «excursionismo» deitzen den horrelako zerba itzateke? Egia esan izenak axola gutxi du, hemen ere beste hainbat lekutan bezalaxe izana behar da.

Jo ezazu mendi batetara ohizko bidetik, ohizko zadorretik eta gizakiak nonnahi aurkituko dituzu. Ez, ez duzu gizakia gorrotatzen! baina zein atsegina den, ozta-ozta ezagutzen duzun bidetik jo, aurrean jomuga duzun gailurra begiztatu orain, gero desagertu eta berriro hurbilduz doakizula ikustea?

Esperientzia berriak dira, esperientzia xumeak behar bada, baina zein erakargarriak!

Asmo horrekin atera nintzen-tamalez bakarrik-Txamantxoiantz ez Belagoako haranetik gora doan ohizko bidetik, baizik toki berriak ezagutu nahian Belabartzeko haran zoragarritik.

Ez nuen biderik ezagutzen, C.D. Navarra delakoaren mapa bakarrik neraman motxilan.

Belabartzeko kanping-etik Xandi deitu iturrira jo nuen egun hartan. Eguzkiak berotze asmoa zuen abuztu hits hartan, iraun nahi zuela adieraziz. Kilometroterdia burutu ondoren kamino bazterreko borda ederra utzi eta bide zabal batetatik ezkererantz, zuzen gorantz abiatu nintzen. Aurrean Ezkaurreko harkaitza esku emateko bezala, harantzago Abizondo zorrotza. Pinudi atseginarene ondoren aldapa bukatu egin zitzaidan. Behi-arranek zuhaitzik gabeko berdegune eder batetara erakarri ninduten. «Garbisa» dago idatzia liburuetan eta leku garbia da bai hau. Hemendik lehen aldiz Txamantxoia—izen bitxidun mendia— nire helburua, ikusti dut. Haren ezkerrean: Lakartxela, Lakora, urrunago Ori. Otsogorrigane... Altimetrea ekarri dut nirekin, lagungarri izan ohi da holakotan. Ez dizu inoiz erpin batek

«ofizialki» duen goratasuna emango, baina tira eguraldia igartzen ere laguntzen dizu.

Garbitzatik gora malda goxoan, zuhaitz tartekatuek ez dizute ikuskizuna galerazten. Beraz ibairantz erortzen den mendilerroa ikusten ari naiz.

Izerdiak erropak erasteko esaten dizu, zein atsegin ihintzaren bustialdia! Aurki eguzkiak berotu egingo du eta urttantta hauek, zapalptzen ditudan urttantta hauek lehortuz joango dira. Aifñubean agian heze geldituko da oraindik.

Iturriburuan nago, iturruburuan dio planoak. Erronkari uskararen aztarna, toponimian bederen! gera bedi luzaro.

1.570 metrotan gaude, Igardakua baino gorago, eta Zuritza aldeko mendiak ditugu orain etorri berriak. Lintza, Petretzemako katea, eta Budogia aldetik gora Hiru Errege Mahaia nabari daiteke. Bat batean urtxintxaren garraxi hestua entzun dugu. Abiada bizian enbor eroritik zuhaitzera igo da. Hantxe gelditu da adarraren indarra desafiatur. Ez dut argazki makinarik. Zer pena! Baina bueno.

Kontsola zaitetz, zure irudimenean gorde ahal izango duzu, makinak baino hobeto. Argazkian gogorapen tinkoa eta aldaezina geldituko zaizu. Gainera fotografia gaizki atera daiteke, eta behar bada damutuko zaizu, egokera hobe batean ez ateratzea.

Zure irudimenean oster, mila koloretako paisaia aldatuko eta sortuko duzu, urtxintxa beraren itxura, ñabardura aldakorretan ixuriko zaizu.



Belagoatik kai batetan aingura bota duen itsasontzi apala dirudi Txamantxoiak.

Baina ai kaletarren patua! Erlojuari so egin diot, so egin behar diot; eguzkiaren egoerak ez dit neri asfaltoko mezulari arrotz honi informazio gehiegi eskaintzen. Liburuak esaten duena baino ordu gehiago daramat gorabidean.


Mendizaleak Igardakua atzean utzi du, oinpean Obieta ohiana, hartzaren babesleku omen. Egia esan hor edo beste edozein tokitan berdintsu bizi zitekeen.

ITURRIBURUA

Iturriburuak aldaz behera leuna dakarkit. Zenbait bele, kantu-ikasle perpetuoak entzun ditut hurbil. Ugari ala itsusi direlako baztertuak? Mazeko muinoan gaude. Gure eskuinetik Zuritzatik datorren bide zabala ikusi dugu. Natura zakartuz hasi zaigu, baina oraindik pago-altxuma ugari dakusagu gure inguruan.

Oraingoan bai Txamantxoiaren branka luzea aurrez aurre jarri zait. Orainxe datorkit malkarra. Borda baten ondotik gorantz ekin diot, harri soltea-erreka bat bailitzan-amilduz hasten da. Bat batean orkatz jauzkaria begiztatu dut, baina berehala galdu egin zait. Izerdia datorkit berriko lokietan behera. Mendia gaindu ala, ihesaren zirrara sentitzen dut nire barnean.

Beheko borda ez dut oraindik begien bistatik galdu. Harantz begiratuz, gogoeta bitxiak datozkit. Mundutik urrun eremita moderno bazina bezala, hantxe edo beste edonon biziko zinateke pozik. A gajua! Zenbat denbora iraungo zenuke? Astebete, hilabete? Zilbor hesteak nahi ta nahi ez, zaratara edo jendartera lotzen zaitu. Zure arbasoen



larrua, azal mehe eta ahul bihurtu da. Zure hankek ez dute-uste hori duzu-haien sendotasunik, haien giharrik. Laster zure ibilaldia burutuko duzu eta mendiaz ahaztuko zara edo behinik behin ez duzu horren hurbil nabari izango.

Ezker aldetik hasi duzu mazela, baina orain eskuinerants joko duzu. Azkar amaitzeko irria sartzen zaizu, goretetik mendile-

roak ikuskatu nahi dituzu. Dagoeneko mendiaren brankari hiru laurdenak jan dizkiodala iruditzen zait.

Harria laster amaituko zait. Belarra datorkit. Oinetakoak kenduko ditut. Eguzki epela eta belar goxoa atsegin ditut orain. Buzoia aurrean dut. Erlojuari berriro ere begiratu bat. Zenbat denbora daramat oinez? Ia hiru ordu. Liburuak baino ia hiru ordu laurden



ORAI

*Belagoa. Zenbat aldiz, ikusi,
begiztatu ote dugu inguru hau?
Baina hala ere, atsegin handiz
heltzen gara hara. Izan ere, inguru
eder bat, liburu atsegin bat
bezalatsu da. Atsegin bazaizu,
berriro ere irakurtzeko prest zaude.
Paisaia ere horrelatsu da.*

gehiago. Agian, zeharkako ibilaldiak bi erata neurtu beharko genituzke?

Ekarri dudun hurbiltzebidearen zati handi bat ikusten ari naiz. Obieta oihana «obi» saskon irudi du.

GAILURREAN

Gailurrean nago eta ez dut orain arte inor ikusi. Abuztuko egun eder honetan inor ez! Harrigarria. Beherago idoi lohitsu bat dakusat zaldien asegarri. Permitti bekit toponimian gorde izan den izen hau hemen Erronkarin erabiltea. Izan ere hainbat eta hainbat hitz dugu hor zehar barreiatu, fosilizaturik. Agian, zergatik ez? Gure hizkuntz arruntera ekar erazi beharko genituzke.

Belagoako haranak paisaia leuntzen du, belardietan behi eta ardi, gorago ostera Larra harkaitsua. Zer kontraste! Lehena edertasun «noblearen» erreinua, Kant-en erara esateko, erakarri egiten duena, atseginez «hartzen» zaituena, bigarrena sublimea, errespetoa, bildurra agian? sortzen dizuna. Egia ote?

Arrakogoititik lainoa dator Belagoarantz. Zuberoako atea, hainbat aldiz hertsirik ikuste honek ezinaren tristura dakarkizu. Muga-hesiak Belagoako aterpearen gaineko aldean. Aurki San Martingo harriraino Santa Engraziatik autobidea zabalduko omen dute. Poetak dioen bezala laino guztien gaintetik diogu guk. Txarrena da, teknikak berak bakarrik deus gutxi egin dezakeela, beste zerbait falta bada...

Baina hori, historia hori, kaleko katramilari dagokio. Ez da mendi gainetan sortu (?), hemen bakea da jaun eta jabe. Baina zer ari haiz hi-diotsat ene buruari haserrekor-, be-

*Leku berdiner, baina
garai desberdinetan
joateak ere, bere
erakargarritasuna
dakur.*



Alberto Lopez Ullacaren argazkia.

har bada goimendietako biztanleen inozentzia defendatzen? Peru Abarka ala Maisu Juan? Ez, inola ere ez! Baina esaidazu adiskide... Zein tentagarri egiten zaizun inoiz honelakorik pentsatzea! Ia, ia, ordu erdia daramat gailurrean eta bakarrik nago oraindik. Solaskide bat nahi nuke, nire gustoko solaskidea.

Bakardadean, urrengo zeharkako ibilaldiaz pentsatzen ari zara: Belagoatik Larra zeharkatu Anie-ra igotzea, ez dirudi itsusia. Txamantxoia honetatik Lapakiza alderantz jo eta gero Budogia aldera. Ez, hori ere ez da txarra.

Haizea findu egin da. Goitik behera, mendi hegalarri jarraituko natzaio. Lizardi dator kit orain gogora, ituna da bai han, behera behar hau, itzuli behar hori. Denboraren iragan nahitaezko hori. Besterik ezean —diozu etsiturik— zure ondorengoek, zuk orain aurkitzen duzun bezalatsu aurki dezatela mendia. Naturzaletasunaren katea ez dadila

eten. Mazeko borda ondotik orain eskuin aldera zuzenduko dut nire urratsa. Ardi sakabanatu batzuk izutu ditut. Zer ote dut nik gaur? Animaliena baino oin isilagoa ote nire?

Ia konturatu gabe Garbitzan nago. Ibilaldiko lehenengo gizakia hantxe dakusat. Artzain harek aldizkaria du hatzartean. Honek ere ez nau somatu. Nik agur egin ondoren konturatu da. Beherago behiak sakabanatu egin zaizkit betozko ilunez.

Laster ipuruen ziztaketa baztertuz bide zabalean sartuko naiz berriro. Patxaranak ere nonnahi ikusten dira. Aurrean Ezkaurreko goi harkaitzak galduaz doaz, pinudiak nagusituz. Belabartzeko larreak aurki zapalduko ditut.

Bost ordu da, atera nintzenetik, orain asfalto aspergarria dut lagun. Asfaltoak egin du baina posible neurri batez behintzat, ni honaino etor nadin. Eskerrak eman behar ote dizkiot teknikari?